



ELIZA ZAHARRA – ELIZA BARRIA

Gure inguruko lehenengo elizak Akordako Graziako Andra Mari



eta Ibarrangeluko San Andres eliza dira, XVI. mendean eraiki ziran.

San Andres eliza ibar txiki baten lepoan dago kokatuta, Elexalde auzunearen erdigunean. Erdi Aroko eliza baten ordezkoa ei da oraingo hau. Inguruko beste herrietan legez, itsasoagaz zerikusirik daukan santu baten omenez egin zan, San Andresen omenez hain justu (San Pedro edo Bariko san Nikolas be itsas-zaindariak dira). XVIII. menderarte elantxobetarron eliza izan zan, ezin dogu ahaztu ibarrangelutarrak be izan ginela garai horretan.

Eliza zaharra

Matxalen Álvarez Garayk, *Bizkaiko herrien monografiak: Ibarrangelu eta Elantxobe* liburuan, aitatzen dau J.R. Iturrizak, bere *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones-en*, dinoana:

"1.750ean eraiki eban Itsas-gizonen Kofradiak Elantxobeko San Nikolas eta paraje eroso eta egonkorragoan egitea pentsatu eben, egunen batean handitu eta Parrokia ere izan eitean".

Urte batzuk beranduago, 1.755eko zemendiaren 28an Calahorrako Hornitzaile eta Bikario Nagusiari parrokiako onuradun baten alde baseliza altxatu barrían mezea ospatzeko baimena eskatu eutsen Elantxobe portuko txalupa-buruek:

"... Ibarrangeluko San Andres Parrokiatik gitxienez leko erdira dagoalako portua, eta jaiegunetan, arrantzan urteten izten deuskuenez, mezea entzun barik geratzen diralako hamaikatxo itsas-gizon, euren animen kaltetarako. Hori ez da zuzena eta aurrerantzean kristautasunak agintzen dauen moduan bizi izateko, Bariko San Nikolas izeneko baseliza eraiki dogu".

Hiru hilabete beranduago, 1756ko zezeilaren 23an, untzi-buruek, baseliza eurek jagongo ebelako berbea emon eben, beste herritarren laguntza barik: "garbikuzi, argitasun eta Meza-opari Santua ospatzeko beharrezkoak diranakaz", baita teilatua eta berreraikitze ardurez kargutuko ziralakoa be. Eskritura berean Santiago Laida untzi-burua arduradun izendatu ebela aitatzen da, mezak ospatzeko baimena luzatutakoan emoiak batu egizan eta urte bakotxaren amaieran San Andreseko abade eta arduradun barriari kontuak aurkeztu egiozan. 1780an, Juan Antonio Ibarraran aukeratu eben eliza barriko arduradun eta horrek 1805. urterarte bete eban eginbeharra.

Ibarrangeluko herritarrek bizitutako auziaren ostean, hitzarmen batetara heldu ziran 1756ko abuztuan: Ibarrangeluko parrokiako hiru abade onuradunetatik bat jaiegun, agindutako egun eta domeketan baselizara joango zan meza ospatzera.

María Jesús Giner Serranok, *Estudio histórico del puerto de Elantxobe* liburuan, Tofiño de San Miguel brigadierrak 1789n idatzitakoa be aitatzen dau. Bertan Elantxobeko eliza herriaren erdialdean egon zala dino, kanpoko buiatik ikusten zala. Maisu-maistren etxeak izandakoaren atzean elizetan erabiltzen ziran hormabular edo kontra-horma ikusi leike gaur egun be.

Eliza barria

XIX. mende hasieran, biztanlegoak gorantz egin eban eta baseliza txiki geratu zan; horrezkero, eliza eraikitzea erabagi eban Kofradiak bere kontura, Iturrizak esandakoaren arabera baselizak hartzen eban lekuan barik, beste nonon.

1803aren abenduak 6 egun eukazala, eliza barria bedeinkatu eta Sakramentu Santua egokon lekuan ipini zan. Txalupa-buruek barriri sinatu eben eskritura formala, honako honetarako behintzat berbea emonez:

"berez eta Kofradia eta bertara jotzen ebenen ordezkari legez, eta kofradian euren lekua hartuko ebenen izenean, eliza barria Jaungoikoa gurtzeko behar dan moduan gorde eta mantenduko ebela".

Bautista Onaindia eta Franzisko Goitia izan ziran hargin eta arotz lanetako arduradunak. 1835ean amaitu zan eliza, Florentino Renteria elantxobetarra izanik ganga lanean enkante hartzailea:

"Lanak amaituta itzi gurean, Herriari erakutsi neutson eliza; haren sendotasuna eta nire berbea beteta egoala ikusita, Herriak ondo amaitutzat jo ebazan lanak..."

1863an, aterpea ipini jakon elizaren ateari eta landutako harrizko horma altxatu eserleku eta guzti. Elizpea eta alboko ataurrea 1915ean burutu ziran. Bermeoko Teodoro Bidaetxea jauna izan zan obra-maisua. Udala eta parrokiaren artean gastuak erdibana ordaintzeko sinatu zan akordioari esker egin ahal izan ziran lanok.



Interesgarriena urreztatutako egurrezko aldare nagusi barrokoa da eta, batez be, Sagrarioko atea, ederra eta kalitatezkoa. Azkanengo hau, Arantzazuko Santutegiari erosi jakon 1892an "aldare nagusian egoan hutsunea betetzeko". Kristoren Berpizkundearen gaiaren inguruan, sakontasun handiko erreliebean egina; urre azalaren gainean polikromia bitxia antzeman daiteke.

Aldare nagusiaren alboetako hormetan, irudi bi dagoz beste horrenbeste idulkiren gainean: Paduako San Antonio eta Alcalako San Diego. Irudiok Izaro irlako desagertutako Frantziskotarren komentutik eroan ziran.

Ermitxa

Ermixarik egon da inoiz leku horretan?

Ermitxa izenez, *ermitxi*, ezagutzen dogu Elantxoben Ramonen taberna atzean dagoen tokia, baina non dago ba ermitxa hori?

1880ko ekainaren 2an Celestino Arambarrik eta Juan Bautista Gamechok Gobernadore Zibilarri eraikina egiteko baimena eskatzen deutse, bertan 1. Solairua ontziola

izango dala eta 2.a arrain-kontserben fabrika aitatzen da. Idazkian Arambarri berak "Playa de Grao"n, baimen barik, ebazan eraikinak (*tejabanitas* dino Arambarrik) aipatzen dauz eta bertan ezin ebazala egin aginduta eukazan ontzi guztiak. Gamechok atzera egiten dau bere eskaeran. Bilboko Maurelagoitia jaunak be 1880ko zezeilean bere arrain-kontserben fabrikaren ondoan beste eraikin batzuk egin gura dauz. Alkateak, 1880ko maiatzean, kontra egingo deutse arrantzaleek bertatik pasateko eta beste askok bainua hartzeko erabiltzen dabezelako toki horreek. Antonio María de Renteriak, arrantzaleen izenean, ermitxatxu bat egitea eskatzen dau behin eta barriro be. Azkanean argi dago ez zala ermita egin. eta Aranbarrik gura ebana lortu ebala, gaur egun taberna dagoen tokian egiten da ontziola. Planoetan, lehenengoa 1884koa (ezkerrean ontziola, erdian ermita) eta 2.a 1885ekoa (Bixentaneko moilaren ondoan ontziola eta segiduan ermita) ikusten da non egoan pentsatuta ermita egitea. Aurrean "Playa de Grao" modura ezagutzen zana. Kontuan izan behar dogu portua Bixentanekoan amaitzen zala, beste moilak-erriberakoa eta farolekoa- ez zirala egingo 1919. urterarte. Behintzat izena gure artean geratu da eta guretzako *ermitxi* da hori lekuori.

